


ISEI - IVEI

**Rs2.2.1 CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2.
MAILAN: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-
KOMUNIKAZIOA.**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Edizioa: 2016ko abendua

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

Inmaculada Tambo

José Ramón Ugarriza

M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

M^a Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

José Luis Tranche

Eduardo Ubieta



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Sarrera	4
Rs2.2.1.1 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian</i> eta dimentsioetan (<i>Irakurmena, Entzumena eta Idazmena</i>) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.	6
Rs2.2.1.2 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.	7
Rs2.2.1.3 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian</i> lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).	8
Rs2.2.1.4 taula: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.	9
Rs2.2.1.4 grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2015. urtea.	10



EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015¹.

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* duten errendimendu mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015eko Ebaluazio Diagnostikoetan Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) lortutakoak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbideratze tipikoarekin eta hiru errendimendu-maila dituen eskala batean.

Emaitzak aldagai jakin batzuk kontuan hartuta aztertzen dira: ikasleen sexua, dimentsioak (*Entzumena, Irakurmena eta Idazmena*), hizkuntza-ereduak² eta ikastetxearen titulartasuna³ (geruzak), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmilarekiko adin-egokitasuna (jaioturtea eta egiten ari den irakasmila), aitaren eta amaren ikasketen maila gorena, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

2015eko Ebaluazio Diagnostikoan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, guztizko batez besteko puntuazioa 249 izan zen. 2009tik (250) 2015era (249), guztizko batez besteko puntuazioen bilakaera negatiboa eta aldi osoko baxuena izan da. Bost Ebaluazio Diagnostikoetan, neskek mutilek baino batez besteko puntuazio altuagoak (gutxi gorabehera 14 puntu gehiago) lortu dituzte.

Hiru dimentsioen artetik, 2009tik 2015era, *Irakurmenean* (247), puntuazioak 3 puntu egin du behera eta *Entzumenean* (252) 2 puntu egin du gora. Aztertutako bost urteen artetik, *Irakurmenean*, 2010ekoa izan da puntuaziorik altuena, eta *Entzumenean*, puntuaziorik altuena 2013koa izan da (266). Sexua aldagaiarekin lotuta, neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte hiru dimentsioetan eta bost ebaluazioetan. Alde horien artean, aipagarriena *Irakurmenean* antzematen da 2009an; bertan, mutilek (240) neskek baino (261) 21 puntu gutxiago lortu dituzte. Alde txikiagoak islatzen dira *Entzumenean* 2010ean eta 2013an (neskek mutilek baino 8 eta 7 puntu gehiago lortu dituzte hurrenez hurren).

2015ean, DBHko 2. mailako biztanleriaren % 54,2 erdiko mailan eta maila aurreratuan kokatzen da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* eta % 45,8 errendimenduko hasierako mailan kokatzen da. Bilakaera-datuak adierazten dutenez, 2009 eta 2015 artean, okerrera egin da erdiko mailan (5,8 puntu) eta maila aurreratuan (2 puntu). 2010. urtea izan zen emaitzarik onenak izandako urtea, hasiera maila baxuenarekin (% 33,6) eta erdiko maila eta maila aurreratu altuenekin (% 66,5). Bost Ebaluazio Diagnostikoetan, mutilek, batez beste, neskek baino 12 puntu gehiago lortu dituzte errendimenduko hasierako mailan, eta aldiz, erdiko mailan eta maila aurreratuan, neskek mutilek baino 4 eta 7 puntu gehiago (hurrenez hurren) lortu dituzte batez beste.

2015eko batez besteko puntuazioak geruzaka (ikastetxearen titulartasuna eta hizkuntza-eredua) aztertu ostean, ikusten da itunpeko D ereduak (265) lortu dituela emaitzarik altuenak; D eredu publikoa (254) dator jarraian; A eredu publikoak (178) eta itunpeko A

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAEen hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

³ EAEen funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



ereduak (207) *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* lortutako emaitzak dira baxuenak. Jokabide hori bera errepikatzen da 2009, 2010, 2011 eta 2013 urteetan ere.

Indize Sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), irakasmilarekiko adin-egokitasuna, ikastetxearen titulartasuna, aitaren eta amaren gehieneko ikasketak, jaiotze-lekua eta familiako hizkuntza aldagaiak kontuan hartuta, 2015eko ebaluazioan aintzat hartzen den profila honako hau da: *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* emaitzarik onenak lortzen dituzten (erdiko mailaren eta maila aurreratuaren batuketa) DBHko 2. mailako ikasleak ISEK maila ertaina-altua dutenak dira (% 62,8), irakasmilarekiko adin-egokitasunean daude (% 61,4), familiako ikasketak maila gorenekoak dira (% 63,4), ez dira atzerritarrak (% 56,1) eta familiako hizkuntza euskara da (% 75,6). Kompetentzia honetan ikusten da hauek direla puntuaziorik baxuenak (2015eko erdiko maila eta maila aurreratuak batuz) lortzeko gehien eragiten duten aldagaiak: atzerritarra izatea (% 27,8), amak eta aitak ez dituzte derrigorrezko ikasketak amaituta (% 22,6), irakasmila errepikatu dute (% 20,4) eta ISEK baxua dute (% 34,2).



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.1 taula eta grafikoak:

DBHko 2. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian eta dimentsioetan (Irakurmena, Entzumena eta Idazmena⁴)* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.

		2009	2010	2011	2013	2015
Guztira	Guztira	250	258	256	256	249
	Neskak	259	264	263	263	255
	Mutilak	242	252	249	250	242
<i>Irakurmena</i>	Guztira	250	257	255	250	247
	Neskak	261	264	264	258	253
	Mutilak	240	250	247	242	240
<i>Entzumena</i>	Guztira	250	260	257	266	252
	Neskak	256	264	261	269	259
	Mutilak	245	256	252	262	245
<i>Idazmena</i>	Guztira	250	250	250	250	250
	Neskak	258	258	258	258	259
	Mutilak	243	242	242	242	241



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.

⁴ Idazmen-proba urtero aldatzen denez, ezin da konparatu eta batez besteko puntuazioa 250 da beti.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.2 taula eta grafikoak:

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.

	Errendimendu maila HASIERA			Errendimendu maila ERDIA			Errendimendu maila AURRERATUA		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	38,1	30,5	45,0	43,6	46,1	41,3	18,4	23,4	13,8
2010	33,6	28,9	38,0	42,4	44,1	40,7	24,1	27,0	21,3
2011	36,0	30,5	41,3	42,7	44,5	41,0	21,2	25,0	17,6
2013	37,1	31,8	42,3	41,7	43,0	40,5	21,2	25,2	17,3
2015	45,8	38,8	52,4	37,8	41,6	34,2	16,4	19,5	13,4



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.3 taula eta grafikoak:

DBHko 2. mailako ikasleek Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).

	2009	2010	2011	2013	2015
A Publikoa	166	172	174	178	178
B Publikoa	240	240	237	226	219
D Publikoa	263	268	265	264	254
A Itunpekoa	194	209	203	205	207
B Itunpekoa	254	258	252	248	242
D Itunpekoa	268	278	276	275	265
Guztira	250	258	256	256	249



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.4 taula:

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

		Ikasle %					Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
		2009	2010	2011	2013	2015	2015		
ISEK	Maila baxua ²	16,7	17,4	16,9	14,9	19,4	65,8	27,6	6,6
	Maila ertain baxua ²	22,5	21,9	22,1	25,0	24,7	46,0	38,3	15,7
	Maila ertain altua ²	28,2	29,0	29,2	28,4	28,8	37,2	42,3	20,5
	Maila altua ²	32,6	31,6	31,8	31,7	27,2	40,5	39,9	19,6
Egokitasuna	Ikasmaila egokia	82,0	81,2	83,0	83,1	82,5	38,6	41,9	19,4
	Ikasmaila EZ egokia	18,0	18,8	17,0	16,9	17,5	79,6	18,3	2,0
Titulartasuna	Publikoa	43,9	45,0	45,0	44,6	47,2	46,2	37,9	15,9
	Itunpekoa	56,1	55,0	55,0	55,4	52,8	45,4	37,7	16,8
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu gabe	2,9	2,6	2,9	2,8	2,7	77,4	20,3	2,3
	Derrigorrezko ikasketak	16,9	15,6	17,5	15,5	15,2	62,4	30,7	6,8
	Batxilergoa, HZ	32,5	32,9	36,4	34,1	36,0	47,8	39,7	12,5
	Goi mailako ikasketak	42,7	42,1	43,2	47,6	46,2	36,6	40,0	23,4
Jaioterrria	Autoktonoa	95,5	95,1	94,8	94,2	93,6	43,9	38,8	17,3
	Atzerritarra	4,5	4,9	5,2	5,8	6,4	72,2	24,3	3,6
Familia-hizkuntza*	Euskara	15,7	20,4	20,7	22,5	21,4	24,4	44,1	31,4
	Euskara EZ dena	83,5	75,9	79,3	76,6	78,6	51,6	36,2	12,3

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.




Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara

Rs2.2.1.4 grafikoa:

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2015. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2015.